

# 2016ko EKAINAREN 6ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

2016ko ekainaren 6an, astelehenarekin, arratseko zortzietan, Herriko Etxean, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, Herriko kontseilua bildu da.

Hor zirenak : Vincent Bru auzapez jauna, Bernadette Jougleux anderea, Eliane Noblia anderea, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, axuantak, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatcegy anderea, Peio Etchelecu jauna, Roger Barbier jauna, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorriak : Christian Devèze jauna, Frédéric Bardin jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq anderea, Maryannick Hirigoyen anderea, Carmen Gonzalez anderea, Camille Jenvrin jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak : Frédéric Bardin jaunak Patrice Dor jaunari, Anne-Marie Pontacq andereak Corinne Othatcegy andereari, Maryannick Hirigoyen andereak Eliane Noblia andereari, Carmen Gonzalez andereak Bernadette Jougleux andereari, Camille Jenvrin jaunak Didier Irastorza jaunari.

## **1 – Bilkurako idazkariaren izendapena.**

Argitxu Hirigoyen anderea **aho batez** bilkurako idazkari bezala izendatua da.

Bilkurako gai zerrendan aipagai bat gehitzeko baimena galdegiten dio Auzapez jaunak Herriko kontseiluari : Donostia 2016 gertakariaren kari, Arnagan, arte garaikidearen erakusketarako, « Cambo événements » elkarteari diru laguntzak ematea. Gertakaria laster iraganen denez, erakusketari esker lortuko dituen irabaziak jaso aitzin aurrekontuaren orekatzeko eta gastuen betetzeko, Herriko Etxearen diru laguntza espero du elkarteak. Herriko kontseiluko kideek baimena eman dutenez, aipagai hau gai zerrendan gehitua izan da.

## **2 – Aitzineko bilkurako bildumaren onarpena.**

2016ko maiatzaren 2ko bilkuraren bildumari buruzko ohar berezirik ba ote den galdetzen die Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei.

Aïçaguerre andereak bildumak gero eta berantago helarazten zaizkiela ohartarazten du, hau da, bi edo hiru asteren buruan. Herritarrek helegiteak aurkeztu nahi baldin badituzte, Herriko kontseiluaren egunak balio duela zehazten du.

Helegitea aurkezteko herritarrek bi hilabete dituztela erantzuten dio Auzapez jaunak. Herriko kontseiluaren erabaki bat betetzeko bi baldintza bete behar dira : alde batetik, Baionako suprefeturaren legalitate kontrola gainditu behar du, eta, bestetik, Herriko Etxean afixatua izan behar da.

Nehork ez duenez ohar berririk gehitzeko, aitzineko bilkurako bilduma gehiengoan onartua da. Izan ere, aitzineko Herriko kontseiluan falta zenez, Lassus jaunak ez du bozketan parte hartu.

Auzapez jaunak adierazpen bat egiten du : « Arrats honetan, Christian Devèze falta da. Joan den aldian, haren hitz hartzea bukatu ez zuelarik hitza hartu bainion, publikoki barkamena galdegin nahi diot. Bistan dena, etorkizuneko HELEP egituraz bakoitzak ditugun iritziak errespetagarriak dira. Gai honi buruz ditugun iritzi kontrajarriek eta desadostasunek ez dute gure arteko harremana gaiztotu behar. 1995 urtetik gaur arte, elkarlanean eta konfiantzarekin lan egin dugu, beti. Kanboren eta gure taldearen alderako atxikimendu kartsua duela badakit. Gure taldeari proposatzen dion lanaren, aholkuen eta ideien kalitatea goratu eta omendu nahi nuke. Hemen, nire konfiantza eta laguntasun osoa berriz adierazi nahi dizkiot. ».

## **2bis – Donostia 2016 gertakaria : « Cambo événements » elkarteari diru laguntza.**

Donostia 2016 Europako Kultur Hiribuaren karietara, 2016ko ekainaren 17tik urriaren 15era, Arnagan, arte garaikidearen erakusketa ederra iraganen dela oroitarazten du Auzapez jaunak. Donostia 2016en karietara, Ipar Euskal Herrian arte garaikidearen erakusketa bat antolatzeko ideia izan du « Echanges Pays-basque » elkarteak. Peio Etchelecu elkarteko kideak beste lankideei euskal kostaldetik hurbil halako erakusketa bat hartzen ahal duen leku enblematiko bat badagoela azaldu zien : Arnaga. Hor, Donostiako bi artisten obrak erakutsiko dira : Gaur mugimendua Oteizarekin batera sortu zuen José Antonio Sistiagaren margolanak eta Oteizaren ikaslea izan zen Iñigo Arregiren eskulturak. Hirugarren artista baten obrak gehitu dira, gainera: Jesús Echevarriaren eskulturak. Aurten, ehun urte dira hura sortu zela. Artista hau omenduko da beraz. Artista horiek beren obrak urrikerik erakutsiko dituztela zehazten du Auzapez jaunak. « Echanges Pays basque » elkarteari esker, Eneko Goia Donostiako alkatearen eta Pablo Berastegui Donostia 2016 Fundazioko Zuzendari Nagusiaren sostengua jaso du Kanboko herriak. Hala, gertakariaren logotipoa erabiltzeko eta horrekin komunikatzeko baimena eskuratu du. Erakusketa babesle gisa laguntzea eta Donostia 2016en egitarauan sartzeta eta agertzea onartu dute bi gizonak. Berriki inauguratu zuten euskal museoarekin batera, Iparraldean Donostia 2016ekin lotura duen kultura gertakaririk handiena da.

Proiektu originala da. Izan ere, Arnagako lorategietan, etxean, laranja negutegian, zalditegian arte garaikidea sartzten den lehen aldia izanen da. Donostia eta Kanboren arteko lotura azkartzeko parada izanen da. Gertakari honentzat diru publikoa erabiliko da. Euroeskualdearen parte gisa Akitaniako eskualdeak diru laguntza handia emanen luke, Pirinio Atlantikoetako departamenduak, Kanboko herriak, eta baita babesle pribatuek ere, gertakari hau babestea onartu duten enpresaburu batzuek, besteak beste.

Erakusketa honen aurrekontua berrogeita hamar mila euroren eta berrogeita hamabost mila euroren artekoa da. Kanboko herriari hamar mila euroko diru laguntza ematearen alde bozkatzeta proposatzen zaio.

Erakusketaren karietara, hiru hizkuntzetan izanen diren hiru katalogo argitaratuko eta salduko dira. Lehen katalogoa Jose Antonio Sistiagari buruzkoa izanen da, bigarrena Iñigo Arregiri buruzkoa eta hirugarrena Jesús Echevarriari buruzkoa. Gainera, Jesús Echevarria sortu zela ehun urte bete direla ospatzeko, beste ekimen batzuk antolatuko dira. Hala, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuarekin herriak duen loturari esker, eta, lorategietan, etxean, laranja negutegian, zalditegian arte garaikidea sartuz, hots, erakusketa honen bitartez, Arnagaren inguruan gertakari handi bat sortuko da. Gertakari hau Arnagarentzat onuragarria izanen da, Donostian prentsa kanpaina zabala eginen baitzaio. Aste Santuko oporretatik kanpo, Hegoaldean, Arnaga Etxeak oihartzun guti du. Arnaga Euskal Herri osoko kultura paisaian kokatzea xede garrantzitsua da. Gertakaria arrakastatsua izanen dela espero du Auzapez jaunak.

20:30etan, Roger Barbier jauna gelara sartzten da.

Aurrekontua jaso eta berehala, kultura batzordeari pasako diola zehazten du Auzapez jaunak. Arte garaikidean aditua den erakusketaren arduradun nagusi bat egongo dela gehitzen du. Jean-François Larralde jaunak lan zail hori egitea onartu du. Hark ditu hitzaldiak antolatuko. Pompidou zentroko arte modernoetako museoko Zuzendaria jinen da, besteak beste. Arte garaikideari eta Arnagan obrak erakutsiko dituzten eskultoreei eta margolariei buruzko hitzaldia ematera jinen da, bereziki.

Hiriart-Urruty andereak berrogeita hamabost mila euroko aurrekontuari buruzko xehetasunak galdegiten ditu. Kanboko herriak hamar mila euroko diru laguntza emanaz gero, eskualdeak eta departamenduak gaineratekoa emanen ote duten galdegiten du.

Frantziako estatuak ez duela diru laguntzarik emanen ihardesten dio Auzapez jaunak. Eskualdeari dagokionez, mugaz gaindiko kredituen parte gisa, Donostia 2016 Fundazioko Zuzendari Nagusia den Pablo Berasteguiarekin eta « Echanges Pays basque » elkartearekin partaidetza bat landua izan da. Txostena instrukzio bidean da eta Kanboko herriak sei edo zazpi mila euro jaso behar lituzke. Departamenduak hein bereko diru zama eman behar luke. Aipatu kopurura ailegatzeko, partaide pribatuek ere beren ekarpena egingen dute. « Arnagaren lagunak » elkarteak hiru mila euro emanen dituela adierazten du eta aurrekontuaren bozkatzeko momentuan elkarte honi bost mila euro ematen zaizkiola zehazten du (bi mila euro elkartearen funtzionamendurako eta hiru mila euro Kanboko herriarekin batera erabakiak diren egitasmo batzuetarako).

Hiriart-Urruty andereak berrogeita hamabost mila euroko aurrekontuaren edukiari buruzko xehetasun gehiago nahi lituzke, jakinez eta hiru artistak urririk jinen direla.

Erakusketaren arduradun nagusiaren gastu ordaintzei, asurantz ezberdinei, zaingo eta begirantza konpainien gastuei, irekitze tenoretan zalditegia eta laranja negutegia zaintzeko kontratatu gazteen ordaintzeari, komunikazioari, José Antonio Sistiaga eta Iñigo Arregiri buruzko bi katalogoen argitaratzei, erakusketaren instalazioari eta bazterreko xahupenei dagokiola ihardesten dio Auzapez jaunak. Aurrekontu osoa kultura batzordeari aurkeztuko zaio. Erakusketaren ondotik finantza-bilana aurkeztuko zaio ere.

Bacardatz jaunak gazteak elkartearen parte gisa edo sasoiko langile gisa enplegatuko ote diren galdegiten du.

Auzapez jaunak gazte horiek sasoiko langile gisa enplegatuko direla baieztatzen dio. Herriko Etxeak usaian enplegatzen dituen gazteen osagarri gisa enplegatuko ditu. Elkarteak gazteen lansariak elkargoari ordainduko dizkio. Christian Devèze jaunak Frantziako Itzulia Kanbotik pasa zelarik 2006 urtean sortu zuen eta « Cambo événements » izena duen elkarte bat dagoela zehazten du. Zergarik ez ordaintzeko, Herriko Etxeak ez du zuzenean kudeatu behar. Horregatik, elkarte bat izan behar da. Zerga Etxeko zerbitzuetatik, elkarte hau interes orokorrekoa dela onartu diote elkargoari. Hala, interes orokorreko egitasmo batzuei egin ekarpen gisa, zergaren apaltzeko parada eskaintzen du. Elkarteko kide eta Lehendakaria dela gehitzen du. Beste bi kide ere badaude: Peio Olhagaray, « Echanges Pays-basque » elkarteko Lehendakaria eta Patrick Jullié elkarte bereko diruzaina. Azken hau « Cambo événements » elkarteko diruzaina bilakatzen da. Erakusketa bukatua izanen delarik eta kontuak hetsiko direlarik, elkartea utziko dute. Zehatzago izateko, hamar mila euroko diru laguntza « Cambo événements » elkarteari emanen zaio.

Hiriart-Urruty andereak Arnaga museoko sarrerak erakusketa ikusteko balioko ote duen eta sarreraren diruaren parte bat elkarteari emanen ote zaion galdegiten du.

Arnagara sartzeko ordaindu beharko dela erantzuten dio Auzapez jaunak, erakusketaren estreinaldi egunean salbu. Bistan dena, sartzeetako dirua Kanboko herriak jasoko du eta ez « Cambo événements » edo «Echanges Pays basque» elkarteek. Jean-François Larraldek bisita lagundu batzuk antolatuko ditu.

Hiriart-Urruty andereak Sistiaga eta Arregirentzat argitaratuko diren katalogoak eta bereziki Kanboko Herriko Etxeak Echevarriarentzat argitaratuko duen katalogoa gutienez elebidunak izanen ote diren galdegiten du.

Auzapez jaunak gutienez euskara-frantsesa elebidunak izanen direla eta hirueledunak izatea ere espero duela ihardesten dio. Donostia 2016 eta mendeurrenaren ospakizunen kariatara, Jean-François Larralderekin eta Maialen Echevarriarekin adosturik, Kanboko herriak hastapeneko atalari Jesús Echevarriaren atala gehitu dio. Kanboko herriak Maialenen lekukotasunak eta Jesús obrari buruzko testu arras interesgarriak biltzen dituen katalogo handiago bat argitaratu nahi luke.

Donostia 2016en egitarau ofizialean oraindik gertakari hau ez dela iragarri azaltzen du Aïçaguerre andereak. Sistiagak bere obrak jadanik Baionan erakutsi zituela gehitzen du. Ondorioz, erakusketa hau ez da gertakari handia.

Auzapez jaunak Baionan izan ez ziren obrak izanen direla zehazten du. Kanboko herriak Sistiaga bere bizitzagatik, lekukotasunagatik, obragatik omendu nahi du. Hala ere, gaur egun, Donostian, arras ezaguna den artista bat da. Obrak leku anitzetan erakutsi ditu Sistiagak, eta horrek ez dio bere obra osoari baliorik kentzen. Gainera, gaur egun, Gaur mugimenduko kide batek edo bik baizik ez dirau bizirik. Arnagako publikoa ez da baitezpada galerietara sartzen. Gertakaria Donostia 2016ko egitarauan ez agertzeari dagokionez, egitarauan, ofiziala dena eta Donostian gertatzen dena baizik ez dela jasotzen zehazten du. Donostia 2016en inguruan gertatuko den oro, Donostian egonen diren bisitariei azalduko zaie. Hala, adibidez, Baionako Euskal museoa edo Kanboko Arnaga bisitatzeko gomita luzatuko zaie.

Donostian eta inguruetan, urte hastapenetik maiatzaren 15a arte, arte garaikidearen erakusketa bat izan dela irakurri du Michelena jaunak prentsan. Dozena bat artistak parte hartu zuten, haietan Arregik eta Sistiagak. Hala, Arnagan izango den erakusketa ez ote da orain artekoaren luzapenaren zati bat besterik ? Donostian erakusketa ikusi duen publikoa, partez gauza bera ikusteko, ez da Kanbora jinen.

Auzapez jaunak ohar biziki ona dela ihardesten dio. Arnagan erakutsiak izanen diren eskulturak Arregik bereziki sortutako eskultura berriak direla gehitzen du.

Bacardatz jauna « Cambo événements » elkarteari emanen zaio diru laguntzari buruz bere baitan galdezka ari da. Diru mailako arriskuei dagokionez, « Echanges Pays basque » elkarteak zein heineko esku hartzea du, jakinez eta elkartean bi kide baizik sartzen ez direla ? Aurrekontuarekin arazo bat baldin bada, zorrak zeinen erantzukizuna izango dira, « Echanges Pays basque » elkartearenak edo Kanboko herriarenak ?

Auzapez jaunak aurrekontua kasik hetsia denez arriskurik ez dagoela ihardesten dio. Proiektuaren eramaile juridikoa Kanboko herriarekin lotura handia duen « Cambo événements » elkarteak dela zehazten du. « Echanges Pays basque » elkartearen parte hartzeari dagokionez, gauza anitz egin dituela ohartu behar da. Erakusketaren eta lekuaren ideiak ukan ditu, artistekin harremanetan jarri da, urririk jinarazten ditu, data egokiak bilatu ditu, proiektua gauzatzeko baldintzak atzeman ditu, babesle pribatuak xerkatu ditu, Berasteguirekin eta Eneko Goiaren

kabinetearekin etengabe harremanetan da, eta, komunikazioaz arduratzen da. Gaitzeko lana egiten du, eta urririk gainera.

Beste elkarte batzuek Kanboko herriarentzat ideia berriak baldin badituzte, animazio bati begirako proiektua osatzeko adibidez, « Cambo événements » elkartearen baitan bermatzen ahalko ote diren galdegiten du Bacardatz jaunak.

Auzapez jaunak « Cambo événements » elkartearen Kanboko Herriko Etxeak antolatzen dituen gertakari handientzat sortu zela zehazten du. « Cambo événements » gutunontzi bat baizik ez da.

Bacardatz jaunak abenduan Kanboko elkarte guztiek diru laguntza eskaera egin zutela gehitzen du. Zergatik « Cambo événements » ez da eremu horretan sartzen ?

Halako egitasmo batendako, asmoa izatetik proiektua gauzatzera, denbora tarte bat behar dela erantzuten dio Auzapez jaunak. Behin betiko erabakia duela guti hartua izan da. Gainera, ez da lehen aldia aurrekontutik kanpoko diru laguntza baten alde bozkatzen dela.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Gehiengoan onartua. Abstenitu direnak: Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aïçaguerre anderea, Michelena jauna.

### **3 – Kirol anitzeko plataforma : enpresen izendapena.**

KANBOKO herriak 550 m<sup>2</sup> inguruko (32 m x 17 m inguru) kirol anitzeko plataforma eraiki nahi duela oroitarazten die Irastorza jaunak Herriko kontseiluko kideei. Plataforma hau Michel LABEGUERIE herriko kirol eremuaren baitan sartuko da. Ikastetxeek bereziki eskolaldi inguruko jarduerentzat eta aisialdi zentroak plataforma hau erabiliko dute. Jende oro sartzen ahalko da bertara eta jende orok erabiltzen ahalko du.

Kirol muntadura hau jende oro honako kiroleetan urririk aritzeko gisan eraikiko da: futbola, saskibaloia, eskubaloia, hockeya, boleibola, badmintona, tenisa, zango tenisa.

2016ko apirilaren 26an, egitasmo honi dagokion prozedura egokitua duen merkatua abiatu zuen Herriko Etxeak.

Merkatu hori bi multzotan banatua izan da :

1. multzoa - Kirol anitzeko plataformaren asmatzea, hornitzea eta eraikitzea
2. multzoa - Lur berdintze lanak - Bide obrak eta gainerateko sareak

Zegarrik gabeko 85 000 eurotan aurreikusitako aurrekontua duen egitasmoa da.

Eskaintzak aurkezteko eguna honakoa zen : 2016ko maiatzaren 19a, 12:00etan. Bi gutun-azal jaso ziren. 2016ko maiatzaren 19an, 15:00etan, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordearen bilkura garaian, bi gutun-azalak ireki ziren.

Bi eskaintzak 1. multzorako eginak zirela ikusi ahal izan zen. 2. multzorako ez zen eskaintzarik egin. Ondorioz, 2. multzoarentzat, beste eskaera bat egitea galdegina izan zen, eta, honi erantzuteko epea, 2016ko maiatzaren 26an, ostegunarekin, 12:00etan jarri zen. Egun hartan, bigarren multzo horrendako 2 gutun-azal jaso ziren.

2016ko maiatzaren 26an, ostegunarekin, 15:00etan, eskaintzen azterketa txostena Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeari aurkeztu zitzaion. Bilkura horren ondotik, enpresei egindako eskaintzen zenbatekoa baieztatzea galdegin zitzaion.

2016ko ekainaren 1ean, asteazkenarekin, 16:30etan, eskaintzak behin betiko aztertzeko, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea berriz bildu zen.

1. multzoari dagokionez, bi enpresek eskaintzak aurkeztu dituzte: Agorespace enpresak zergarik gabeko 50 821 euroko eskaintza eta Kaso enpresak zergarik gabeko 44 600 euroko eskaintza. Hautagaiaren hautatzeko irizpide ezberdinak daude jokoan: prezioa, teknika, libro izatea, erreferentziak, eskaintzaren kalitatea. Agorespace enpresak eskaintzaren kalitate teknikoagoa eta material egokiagoa zuela ikusi ahal izan dute batzordeko kideek.

Jougleux anderearekin batera halako bi plataforma bisitatu dituzte, bata, Arberatzen, Agorespace enpresak egin zuena, eta, bestea, Angeluko Amodio Ganberan, Kaso enpresak egin zuena. Hala, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeak eskaintzarik onena hautatu du.

Agorespace enpresak Frantzia osoan erreferentzia sendoak ditu. Kirol anitzeko plataforma horien sortzailea da.

2. multzoari dagokionez, bi enpresek eskaintzak aurkeztu dituzte: SO.BA.MAT enpresak zergarik gabeko 21 530 euroko eskaintza eta Eurovia enpresak zergarik gabeko 27 125 euroko eskaintza. Eskaintzarik apalena hautatua izan da.

Tratua orotara zergarik gabeko 72 351 eurokoa da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

#### **4 – Herriko eraikinen eraginkortasun energetikoaren hobekuntza : enpresen izendapena.**

Orotara 300 000 euroko diru kopurua balio duen egitasmo hau, lurralde kontratuaren parte gisa, %25ean finantzatua izan dela oroitarazten du Goytino jaunak. 2015ean, ama eskola osoki berritua izan zen. 2016an, Kanbo Behereko eskola, lehen mailako eskoa, Herriko Etxea eta zerbitzu anitzeko zentroa eta mediateka hobetzea falta da.

2016ko maiatzaren 19an, ostegunarekin, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea bildu zen. Bilkura hartan, Kanbo Behereko eskolarendako honakoa ikusi ahal izan zen: 1. multzorako eskaintzarik ez zen jaso eta 2. multzorako Arrambide sozietateak egin zuen eskaintza obralariak estimatutakoa baino anitzaz handiagoa zen.

2016ko ekainaren 1ean, asteazkenarekin, multzoa enpresei esleitzeko, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea berriz bildu zen. Atxikitako enpresak honakoak dira :

Kanbo Behereko eskolarentzat : 1. multzoa zurgin lanak : Langileak enpresa zergarik gabeko 13 948.25 eurotan, 2. multzoa elektrizitatea eta berokuntza : Durruty enpresa zergarik gabeko 28 943 eurotan.

Curutchague lehen mailako eskolarentzat : 1. multzoa aire girotua eta haizeztatze sistema : Arrambide enpresa zergarik gabeko 28 204.29 eurotan, 2. multzoa zurgin lanak : A3M enpresa zergarik gabeko 12 750 eurotan.

Herriko Etxearentzat : 1. multzoa aire girotua : Arrambide enpresa zergarik gabeko 13 939.15 eurotan, 2. multzoa igeltsero lanak eta soailuak : Olhagaray enpresa zergarik gabeko 3 500 eurotan.

Zerbitzu anitzeko zentroa eta mediatekarentzat : 1. multzoa aire girotua : Arrambide enpresa zergarik gabeko 34 305.72 eurotan.

Tratua orotara zergarik gabeko 135 590.41 eurokoa da.

Michelena jaunak lehen mailako eskolari buruzko ohar bat egiten du, eta, bereziki, zergarik gabeko 28 204.29 eurotan estimatutako 1. multzoko aire girotuari buruzko oharra. Aitzineko Herriko kontseiluan 12 000 euroko diru kopurua aipatua izan zen.

Goytino jauna ez da kopuru hartaz oroitzen.

Hiriart-Urruty andereak Herriko kontseilua aitzin dokumentuak jasotzea ongi litzatekeela erraten du, eta, ez, gaur bezala, Herriko kontseilu egunean, mahai gainean ukatea.

Hori Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea ekainaren 1ean, hau da, berant bildu zelako gertatzen dela ihardesten dio Goytino jaunak.

Bacardatz jauna Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordean zela eta ondorioz hark dokumentuak badituela gehitzen du Irastorza jaunak.

Goytino jaunak 12 000 euroko diru kopurua estimazio bat izan behar zela uste du, beste enpresen eskaintzei begiratu gero, atxikitako eskaintzaren heinekoak baitira. Onartutako eskaintzaren aldean, estimazioa apalegia zen menturaz.

Etchelecu jaunak gehitzen du zergarik gabeko 150 500 eurotan egin zela estimazioa eta azkenean atxikitakoa orotara zergarik gabeko 135 590.41 eurokoa dela.

Hiriart-Urruty andereak aire girotuaren gai zehatzari buruzko erantzun bat nahi dutela zehazten du.

27 326.93 euroko diru kopuruan aire girotua eta haizeztatze sistema bilduak direla ihardesten dio Irastorza jaunak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **5 – Diru laguntzak.**

Proiektu bakoitzarentzat emandako diru laguntza guztiak kendu ondoan, HELEPEk eta bereziki Errobi Herri Elkargoak herriak zor dituen zergen %50eko heineko diru laguntzak eman ditzaketela oroitarazten du Auzapez jaunak. Aipagai hau aitzineko Herriko kontseiluko gai zerrendatik kendu behar izan zen. Izan ere, Herri Elkargoak diru kopuru bat erabaki zuen, baina, bi herrik bestelako diru kopuruaren alde bozkatu zuten. Herriko kontseiluko kideei helarazi zitzairen erabakitze proiektuan eta hitzarmen proiektuan azaldua den bezala, Herriko kontseiluak 1 699 752 euroko diru kopuruari buruzko erabakia hartu behar du.

Hiriart-Urruty andereak 700 000 euroko kostua duen merkatu estaliaren eraikuntzarako lursail baten erosteko egitasmoari buruzko xehetasunak nahi ditu.

Auzapez jaunak ezetz ihardesten dio. Herriko Etxeak lursail bat erosi eta hor menturaz merkatu estali bat eraiki nahiko du.

Hiriart-Urruty andereak bi urteren epean proiektua abiatua izan behar dela azpimarratzen du.

Auzapez jaunak lursailaren erosteari buruz baietz ihardesten dio. Epe ertainean edo epe luzean ere, aurreikuspen politika ona dela uste du elkargoak. Herriaren erdialdean lursail baten jabe izatea xede ona da. Hala, interesa berehala adieraziko luketen promotoreek, ez lukete lursaila eskuratuko. Alabaina, negoziaketak ez dira bideratuak. Beraz, merkatu estali baten eraikuntza proiektuaren bitartez, elkargoak interesa agertzen du. Bukaerako egitasmoa merkatu estalia eraikitzea baldin bada ere, hastapen batean, asmoa lursaila erostea da.

Gaur arte, obrak 2016 eta 2017 urteetan eginen zirela behin eta berriz errepikatu zela azaltzen du Michelena jaunak. Kanboko herriaren eta Errobi Herri Elkargoaren arteko hitzarmen proiektuan, baina, ez da datarik edo egutegirik ikusten ahal. Ondorioz, elkargoak proiektu bat 2016an plantan ezar dezakeela, eta, soilik 2020an buka dezakeela pentsa daiteke. Hitzarmen honetan adostutakoaren arabera, ez da deus hori egitera debekatzen duenik. Hori legala ote da ? Nahitara egina ote da ? Edo ahanztura bat ote da ?

Erabakitze proiektua eta hitzarmen proiektua Errobi Herri Elkargoak egin dituela ihardesten dio Auzapez jaunak. Ondorioz, galdera Errobi Herri Elkargoko Lehendakariari pausatu behar zaio. Gainera, gastuak 2016ko aurrekontuan agertzea da funtsezko baldintza. 2016ko hastapeneko aurrekontua bozkatzeko tenorean, hori egin zen. Eraikuntzari dagokionez, normalki, 2016an edo 2017an egin behar litzateke.

Hitzarmenean idatzia denaren arabera, elkargoa ez dela horretara behartua gehitzen du Michelena jaunak.

Herri Elkargoaren afera dela ihardesten dio Auzapez jaunak. Diru laguntza horiendako finantza aholkularia izan den Valletou jaunak baldintza zenbait bazirela zehaztu zuen : 1 : proiektu oro hautagarri da, bide obrak egitea eta lursail baten erostea barne. 2 : diru laguntzak kendu ondoan, zenbatekoaren %50a izan behar da. 3 : herrien aurrekontuaren N urtean, hau da, 2016an, sartu behar da proiektua.

Legelariak lursailaren erosteko arazorik ez zegoela erran duela gehitzen du Aïçaguerre andereak, baina lurra ezin zela lur funtsen erreserbatzeko erosi, baizik eta ekipamendu baten instalatzeko izan behar zuela. Aipatutako lursaila zein den ikusten du, baina lursailaren azalera zein den galdegiten du.

Lursaila ezagutzen duenez, hirigintzaz arduratzen den langileari galdetzeko ihardesten dio Auzapez jaunak. Azalera 6 800 m<sup>2</sup> ingurukoa da. Lursaila biziki ongi kokatua da. Duela urte batzuk, promotore anitzek, bertakoek ere tartean, lursaila gutzizatu zuten. Auzapez jaunak jabeari lursaila erreserban jarri behar zela eta Kanboko herriak horren aldeko interesa bazuela ulertarazi zion. Kanboko herriaren zeregina interes orokorraren eta herriaren interesen alde egitea da. Horretarako, proiektu bat iragarri da, eta, gerora, proiektua moldatu edo ordezkatu behar baldin bada, osoki ala partez interes orokorreko proiektu baten aldekoa izanen da.

Hiriart-Urruty andereak proiektu hori zein den galdegiten du.



Auzapez jaunak hastapenean ideia batzuk adierazten direla ihardesten dio, gero ideia horiek gauzatzeko lursailak erosten direla, eta azkenik ideiarene eta lur funtsen arteko egokitasunari begiratzen zaiola. Horretarako, haren udal taldeak 2020 urte arte baduela erraten du. Ondotik, beste batzuk jinen dira, eta, desagertuko den Herri Elkargoaren laguntzarekin, 2016 urtean, herriaren erdi-erdian, Kanboko Auzapezak lursail baten erostea proposatu zuelako, pozik izanen dira, agian. Ez du uste etorkizunean leporatuko zaion zerbait izanen dela, alderantziz.

Kanboko herriak herriaren erdialdean lursailak erostea gauza ona dela gehitzen du Hiriart-Urruty andereak, baina proiektuari buruz pixka bat gehiago jakin nahi du. « Zerbaiten alde bozkatzeari galdegiten diguzue, baina arras enigmatikoak zarete ».

Ez duela gehiagorik erranen ihardesten dio Auzapez jaunak. Interes orokorreko proiektu batekin lursail baten erostea da xedea, eta merkatu estali baten eraikitzea gero.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Gehiengoan onartua.

Abstenitu direnak: Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aïçaguerre anderea, Michelena jauna.

Hiriart-Urruty andereak beste proiektu batzuk dituztelako abstenitzen direla zehazten du. Proiektu batzuek trabatzen dituzte, hala nola 300 000 euroko gastuak dituen Arnaga Etxearen argizatzeak. Lehentasunak badirela ohartarazten du. Hala, diru laguntzak Azantzaren berritzeko edo azken berrogei urteetan amiantoarekin eraiki prefabrikatu batzuetan haurrak hartzen dituen Kanbo Behereko eskolaren berritzeko erabiltzea lehenetsiko zuen.

Diru laguntza horiek jaso ez balira gibelatuak izanen ziren egitasmo batzuen gauzatzeko, diru laguntza horiek jasotzea Kanboko herriarentzat interes handikoa dela zehaztu nahi du Auzapez jaunak.

## **6 – San Mixel Garikoitz karrikaren zortasun-eremuan, lursail baten eskualdatzea – jabego publikoan sartzeari eta sailkatzea : inkestaren abiatzea.**

Belliard Jocelyne anderea San Mixel Garikoitz karrikaren zortasun-eremuan den eta 889 m<sup>2</sup>ko azalera duen AV 83 zenbakidun lursaila euro sinboliko baten truke eskualdatzearen alde dela azaltzen dio Auzapez jaunak biltzarrari. Lursail hori errepidearen parte da jadanik. Egoera erregulartzea komeni da. Lursail hori jabego publikora eskualdatzeko, inkesta bat beharrezkoa da. Inkesta bururatua izanen delarik eta txostengileak haren iritzia emanen duelarik, lursail hori jabego publikora sartzeko erabakia hartu beharko da.

Bacardatz jaunak lursailaren 889 m<sup>2</sup>ak errepide osoari dagokion galdegiten du.

Auzapez jaunak baietz ihardesten dio.

Errepidea duela guti berritua izan zela ohartarazten du Bacardatz jaunak.

Bacardatz jauna aspalditik hautetsi dela eta ez diola aldi oro berriz esplikatu ihardesten dio Auzapez jaunak. Adibidez, txokolategilearen karrikan, lehen, herriko bide hertsu bat zegoen. Delbarre etxe multzoaren eraikitzearen ondorioz zabaldu zen, eta azalaren bi herenak pribatu baten esku daude, beti. Errobi kolegioko aparkalekua jabego pribatuan zen, nahiz eta aparkalekua erabilera publikorako izan eta beraz jabego publikoan sartu beharko litzatekeen. Sekula erregulatu

ez diren egoerak direla oroitarazten du. Aukera dagoelarik eta elkargoa ohartzen delarik, egoera horiek oneratu behar dira. Kadastran neurri batean jabe pribatuenak ziren herriko errepideak dira.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **7 – San Mixel Garikoitz karrikan, lursail baten eskualdatzea – jabego publikoan sartzea eta sailkatzea : inkestaren abiatzea.**

Claire Tillac anderea San Mixel Garikoitz karrikan den eta 38 m<sup>2</sup>ko azalera duen AV 82 zenbakidun lursaila euro sinboliko baten truke eskualdatzearen alde dela azaltzen dio Auzapez jaunak biltzarrari. Lursail zati hori errepidearen parte da jadanik. Salmenta baten menturan, egoera erregulartzea komeni da. Lursail hori jabego publikora eskualdatzeko, inkesta bat beharrezkoa da.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **8 – Usotegien ematea.**

2011 urtean, Herriko kontseiluak gailurretako bidean kokatuak diren bi usotegi 5 urterendako eta urteko 60 euroko zerbitzu zergaren truke berritzea onartu zuela oroitarazten du Etchelecu jaunak, alde batetik, A 173 zenbakidun lursailean, Roger Chapelet jaunarentzat, eta, bestetik, A 206 lursailean, René Haran jaunarentzat eta Claude Mongaboure jaunarentzat.

Emateen epea 2016ko ekainaren 30ean bururatzen da.

Oraingo bi erabiltzaileek ematea berritu nahi izan dute. ONF eta ihizi sozietateko Lehendakariari eskaerak helarazi zaizkie eta horiek beren oniritzia eman dute.

Herriko kontseiluak zerbitzu zergaren heina finkatu behar du. Hein berean mantentzea proposatzen du eta Roger Chapelet jaunari eta René Haran jaunari et Claude Mongaboure jaunari usotegien ematearen berritzea proposatzen du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **9 – « Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Harrera » eskumenaren eskualdaketa : hitzarmenak eta zerbitzuen kobratzea.**

2015eko irailaren 21eko 21-09-2015-005 zenbakidun erabakiaren bitartez, 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina, Herriko kontseiluak « Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Harrera » eskumena Kanboko herriari eskualdatzea onartu zuela oroitarazten du Noblia andereak.

Eskualdaketa horren gauzatzearen kariatara, izendapen juridikoaren aldaketaren xedearekin, urtarrilaren 1etik, eskumen esparru honi dagozkion erabaki batzuk (kontratuak-hitzarmenak) gehigarri bat gehituz sinpleki eskualdatzen ahal dira.

Batzuetan, Kanboko herriarekin hitzarmen berri batzuk erregulatu beharko dira. Hala, Herriko kontseiluari Auzapez jauna honakoa izenpetzera baimentzea proposatzen zaio:

- Itsasuko eta Luhusoko haurrak « Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Harrera » lekuan ibiltzeko finantzamendu hitzarmena,
- Pirinio Atlantikoetako departamenduarekin eta Errobi kolegioarekin, asteazkenetako apairuak hornitzeko hitzarmena,

- Pirinio Atlantikoetako departamenduarekin eta Errobi kolegioarekin, 2016ko uztailaren 6tik agorrilaren 12ra kolegioko gelak erabiltzeko hitzarmena.

Halaber, 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina, honakoa baimentzea:

- 2015eko maiatzaren 13an, H.J.L.Z.ko Administrazio kontseiluak erabakitako « Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Harrerako » eskolaz kanpoko eta eskolaldi inguruko prezioak hein berean mantentzea.
- eskolaz kanpoko eta eskolaldi inguruko harrera zerbitzuei lotutako irabaziak kobratzea:
  - o Etxe-zerbitzu txekoko diru itzultze zentroaren bitartez eta ondorioz Kanboko herria CRCEUren kide egitea baimentzea,
  - o herriaren eta M.S.A. egituraren artean,
  - o herriaren eta Pirinio Atlantikoetako departamenduaren artean.

Hiriart-Urruty andereak Kanboko, Itsasuko eta Luhusoko prezioak ezberdinak ote diren galdetzen du.

Noblia andereak baietz ihardesten dio.

Prezioak herriekin hitzarturik finkatu direla zehazten du Auzapez jaunak.

Aisialdi zentroan, Kanboko, Itsasuko eta Luhusoko haurrak bakarrik egon ote daitezkeen galdetzen du Hiriart-Urruty andereak.

Noblia andereak baietz ihardesten dio eta ur-onetako ibiltarien haurrak ere aisialdi zentroan egon daitezkeela gehitzen du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **10 – Elkarteendako diru laguntzak.**

Kanboko Komertsanteen eta Ofizialeileen Batasunak (KKOB) diru laguntza eskaera bat egin duela jakinarazten die Dor jaunak Herriko kontseiluko kideei. « Pays Basque au Coeur » elkartearen kide egiteko, 1 500 euroko aurrekontutik, 500 euroko diru laguntza eskatzen du.

Errobi Herri Elkargoari eskatua dio KKOBk, eta elkargoarengandik 500 euroko diru laguntza jaso du. KKOBeko Lehendakariaren helburua aurrekontua hiru herenetan zatitzea da, hau da, Errobi Herri Elkargoak 500 €, Kanboko herriak 500 € eta KKOBk 500 € ematea.

Ipar Euskal Herri barnealdean duela hamar bat urte sortu zen elkarte da « Pays Basque au Coeur ». Barnealdeko komertsanteen batasun guztien nahikariak biltzeko xedea du. Baserrialdeko herrietako saltegiei baliabide modernoagoak ematen entseatzeko da. Webgune bat sortu du. Elkarteko kide den komertsante bakoitzak webgunean erakusleihu bat du. Gainera, opari txeke sistema bat kudeatzeko parada eskaintzen du, eta sistema horrek funtzionatzen du. Nazioarteko saltoki handien opari txekeei aurre egiteko, « Pays Basque au Coeur » elkarteak baserrialdeko enpresa batzordeei eta tokiko enpresei estatu mailako opari txekeen zerga interes berak dituzten opari txekeak sortu ditu, eta, bereziki, opari txekeak tokiko saltegiatan gastatzeko parada sortu du.

Kanboko komertsanteek « Pays Basque au Coeur » elkartearen kide izateko borondatea erakutsi dute. Diru laguntza eskaera hau bakarra izanen da. Izan ere, KKOBk urtero « Pays Basque au Coeur » elkartearen urtesaria ordaindu beharko du, baina, hurrengo urteetan, bere diruarekin egingen du.

Herri Elkargoak hartu erabakia (500 euroko parte hartzea), diru laguntza eskaera bat eginen lukeen Komertsanteen Batasuna bakoitzarentzat balio duela gehitzen du Auzapez jaunak. Ezpeletakoa eta Uztaritzekoa egitasmo horren parte baldin badira, bakoitzak 500 euroko diru laguntza jasoko du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **11 – Errobi Herri Elkargoko « Haurtzaroa » batzordea : herriaren ordezkari izanen diren bi ordezkarien izendapena.**

Herri Elkargoak jadanik erabakia duenez, gai zerrendatik « haurtzaroa » aipagaia kentzen duela zehazten du Auzapez jaunak. Herriko kontseiluak lehenik erabaki behar zuela uste izan zuen Kanboko herriak, baina, herri guztiek Herriko kontseiluko erabakirik gabe ordezkariak izendatu dituztela jakin du. Elkargoko kontseiluak izenak jakinarazi dituzenez, erabaki bat hartzeak ez du zentzurik.

Eskumen berri bati dagokion batzorde berri honetako kideak honela izendatuak izan dira: aitzineko Elkargoko kontseilu batean, batzorde hau herri bakoitzeko ordezkari batekin eta Uztaritzeko eta Kanboko kasuan bi ordezkariarekin osatua izanen zela erabaki zen. Herri bakoitzeko auzapezek proposamenak egin dituzte. Ordezkari bat duten herrientzat, ordezkaria Auzapeza bera edo haurtzaroz arduratzen den auzapezordea izango da. Bi ordezkari dituzten herrientzat, Uztaritzeko herriaren ordezkatzeko, bere burua eta auzapezordea proposatu ditu Auzapezak. Talde bilkuran aztertu ondoren, Kanboko herriak haurtzaroz arduratzen den Eliane Noblia anderea eta auzapezordea den Bernadette Jogleux anderea proposatzen ditu.

Herri Elkargoko beste batzorde guzientzat bezala, batzorde honentzat ere Herriko kontseiluan erabakirik ez dela hartu suposatzen du Hiriart-Urruty andereak. Haatik, beste batzordeetako ordezkariak hautatu zirelarik, biltzarrean egin zen, kide bakoitza aurkeztu zen eta lehentasuna elkargoko hautetsiei eman zitzairen. Batzorde honentzat, ez du aurkezteko astirik ere izan. Auzapezak interesatua zen ala ez galdetu ez izana eta aginpidez haren taldeko bi ordezkari izendatu izana damugarri dela uste du. Hirigintza batzordean baino jarraikitasun gehiago espero duela zehazten du. Izan ere, batzorde hartan ordezkari gisa ari da bera eta Jogleux anderea sekula jiten ez dela adierazten du.

Proposamenak exekutiboak, hau da, auzapezak, auzapezordeak edo gai horietaz arduratzen den axuantak egiten dituela oroitarazten du Auzapez jaunak. Bi ordezkari dituzten kasu berezietan, Uztaritzen kasu, bere burua eta haurtzaroz arduratzen axuanta proposatu ditu. Kanbon, Auzapez jaunak gauza bera egin du.

## **12 – Biztanleriaren kontaketa egiteko herriko koordinatzailea.**

2004az geroztik, bost urte guziz, hamar mila biztanle baino guttiagoko herrietan, INSEEk biztanleria kontaketa oso bat egiten duela oroitarazten du Auzapez jaunak. 2017ko urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra, Kanbon, hurrengo errolda eginen da. Horretarako, INSEEk solaskide berezia galdegiten du. Azken hau, biztanleriaren kontaketa egiteko herriko koordinatzailea izanen da. Auzapeza bera, beste edozein hautetsi edo herriko langile bat ere herriko koordinatzailea izan daiteke. 2007an eta 2012an bezala, herriko koordinatzaile funtzioa betetzeko, zerbitzuetako zuzendari nagusia den Guy Perez izendatzea proposatzen du Auzapez jaunak. Lan hau administratiboa da bereziki : biztanleriaren kontaketa eginen duten langilea aurkitzea, INSEEk

eskaintzen duen formakuntza bermatzea, kontratuak idaztea eta Frantziako estatuko zerbitzuen eta bereziki INSEEren solaskidea izatea.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

### **13 – Langileak : epe mugatuzko lanpostu baten sortzea.**

Kanbo Behereko eskolan ATSEM gisa eta garbiketa langile gisa denbora osoz lanean aritzeko, 2013ko martxoan, Herriko kontseiluak etorkizuneko enplegu bat sortu zuela oroitarazten du Zerbitzuetako zuzendari nagusiak. Lanpostu hau hiru urteko epe baterako sortu zen, 2013ko apirilaren 1etik 2016ko martxoaren 31ra. Egun, abenduaz geroztik, langile honek euskara formakuntza trinko bat segitzen du. 2016ko ekainaren 30a arteko formakuntza denez, langileak formakuntza buka dezan, 2016ko otsailaren 29ko erabakiaren ondorioz, Herriko kontseiluak langilearen kontratua 2016ko ekainaren 30a arte luzatzea erabaki du.

Orain, 2016ko agorrilaren 29tik 2017ko agorrilaren 28ra urte bateko epea duen ATSEM lanpostu baten sortzea komeni da.

Herriko kontseiluak lanpostu horren sortzeari buruzko iritzia adierazi behar du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

### **14 – Langileak :**

#### **1º) Denbora Aurrezki-Kontua.**

Auzapez jaunak langileen aldeko eta izaera sozial arras garrantzitsua duten bi baliabide direla zehazten du. Langileei 35 orduko lan astearen eta lan denboraren laburtzearen (RTT) sistemaren aplikatzea aurkeztu zitzaielarik, elkargoan lortutako gizarte abantaila guzietan buruzko puntua egin zen. Hala, geroko perspektibak zein ziren ikusi eta bi gai aipatu ziren: Denbora Aurrezki-Kontua eta jatetxe txartelen ematea.

Zuzenbide publikoko langileek urte batean erabili ez dituzten pausa egunak aurrezteko balio duen baliabidea da Denbora Aurrezki-Kontua.

Araudiak Denbora Aurrezki-Kontuaren esparru orokorra finkatzen du. Denbora Aurrezki-Kontuaren irekitze eskaera, hornitzea, opzioak eta erabilpen eskaerak langilearen esku dira. Frantziako zuzenbidean, Denbora Aurrezki-Kontua langileak duen eskubide bat da. Langileak halakorik eskatzen baldin badu, elkargoak hori eman behar dio. Kasuz kasu erantzun ordez, aukera hori langile guzietan ematea hobe da. Hala, langile guzientzat balio duten Denbora Aurrezki-Kontuaren irekitze, funtzionamendu, erabilpen, kudeaketa eta heste moldeei buruzko erabakia hartzea hobe da. Lurralde Funtzio Publikoan Denbora Aurrezki-Kontuari dagokion 2004ko dekretuaren arabera eginen da.

Denbora osoz edo zati denboraz lanean ari diren, manera jarraikian enpleguak diren eta gutienez urte bateko zerbitzua eskaini duten funtzionario tituludunek eta langile ez tituludunek Denbora Aurrezki-Kontu bat ukaten ahalko dute.

Joan den urtarrilaren 22an, Batzorde Tekniko Parekidean gai hori aztertua izan zen. Bi multzoek, hau da, elkargoko ordezkariak eta langileen ordezkariak, aho batez Denbora Aurrezki-Kontua sortzearen aldeko iritzia argia eman zuten. Arrats honetan aurkeztutako araudiaren

parte gisa malgutasun handiagoarekin aritzeko parada eskaintzen du. Araudiari buruzko erabakia hartu ondoan, araudia herriko eta HJLZko langile guziei ezagutzera emanen zaie. Izan ere, denen arteko Higiene, Segurtasun eta Lan Baldintzen Batzordea eta Batzorde Tekniko Parekide bat egiteko erabakia hartua izan da.

Auzapez jaunak Denbora Aurrezki-Kontua plantan ezartzea aitzinamendu soziala dela azpimarratzen du. Langileek beren denbora hobeki kudeatzeko parada eskaintzen du. Eskubide hau ezagutua da eta baliabide horren abantaila ukan dezaketen langile guziek berehala erabil dezakete.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **2º) Jatetxe txartelen ematea.**

2007ko otsailaren 19ko legearen ondotik, laguntzen edo zerbitzu sozialen alorrean, Herriko Etxe oro bere langileei dirua eskaintzera behartua dela seinalatzen du Auzapez jaunak. Langile publikoen eta beren familien bizi baldintzak hobetzea da xedea. Alor ezberdinetan egin daiteke hori, janarian, aloimenduan, haurtzaroan, aisialdian eta egoera gogorrei aurre egiteko, besteak beste. Kanboko herriak bere langileak laguntzen ditu, adibidez baldintza hobetan igerilekura sartzeko eta aisialdi zentroan izena emateko.

Jatetxe txartelen ematea gizarte ekintza zerbitzuen barne sartzen da, ordainsariaren osagarri gisa. Kanboko herriari dagokionez, langile batzuek Batzorde Tekniko Parekidearen gai zerrendan hori aipatu nahi zutela jakinarazi zuten. Batzorde Tekniko Parekideak jatetxe txartelei buruz mintzatzea onartu zuen. 2015eko urriaren 22an lehen bilkura iragan zen. Langileek proposamenak aurkeztu zituzten, Patrick Peña jaunak txosten bat aurkeztu zuen eta baliabide horren prestakuntza lanetan sakontzea erabakia izan zen. 2016ko urtarrilaren 22an bigarren bilkura bat antolatu zen, eta hirugarren bilkura bat 2016ko apirilaren 22an. Bi multzoek, hau da, elkargoko ordezkariak eta langileen ordezkariak, aho batez jatetxe txartelen ematearen aldeko iritzia eman zuten.

Langileen ordezkariak proposaturik eta onarturik, urtean gehienez 6 euroko balioa duten ehun jatetxe txartel ematea erabakia izan zen. Kanboko herriak jatetxe txartelen ordaintzean parte hartuko zuen. Parte hartzea %50ekoa zen hastapenean. Langileek hala galdeginik, HJLZko Lehendakariak eta Auzapez jaunak parte hartzea indartzea onartu zuten eta Kanboko herriaren parte hartzea %60ra pasa zuten. 6 euroko balioa duen jatetxe txartel bakoitzeko, Kanboko herriak 3.60 euro ordainduko du, eta, gaineratekoa, 2.40 euro hots, langilearen gain geldituko da. Langileak baliabide hau ukatzen ahal du edo kantitate ttipiagoko eta hamarnakako jatetxe txartelak eska ditzake. Langileak ehun jatetxe txartelak hartzen baldin baditu, orenen buru, elkargoarentzat urteko eta langileko 360 euroko kostua badu.

Gizarte neurri arras garrantzitsua da, jakinez eta baduela urte zenbait funtzionarioen lansariak blokatuak direla, eta bereziki gutien lagunduak diren C saileko funtzionarioak. Elkargoarentzat bere langileak eta haien familiak sostengatzeko manera bat da, esku ukaldi bat emateko modu bat da. Izan ere, jatetxe txartelak jatetxeetan erabiltzen ahalko dira, baina baita supermerkatuetan ere. Urteko eta langileko 360 euroko saria ematea bezala da. Egitasmoa ekainetik aitzina planta ezarriko da, eta honako egutegia jarraituko du: 2016ko ekainaren 7an, merkatuaren abiatzea. Ekainaren 28an, 12:00etan, eskaintzen aurkezpen eguna. Egun hartan, 14:00etan, gutun-azalen irekitzeko, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordearen lehen bilkura. Uztailaren 4an, 14:00etan, sarituaren hautatzeko, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordearen bigarren bilkura. Uztailaren 4a astelehenarekin betiere, baina 20:00etan, sarituaren izendatzeko, Herriko kontseiluak erabakia hartuko du. 2016ko laugarren hiru hilabetekoan, langileko 25 jatetxe txartel eskainiko dira, hau da, urteko ehun jatetxe txartelen laurdena. Ekaineko lansari agiriarekin batera, langileei informazio ohar bat igorriko zaie. 2016 urtearendako, langileek jatetxe txartelak

agorrilaren 31n eskatu beharko dituzte berantenez, eta 2017 urtearendako, berantenez 2016ko azaroaren 30ean.

Langile batzuek eskatutako bi neurri garrantzitsu horien ekarpen soziala azpimarratu nahi du Auzapez jaunak. Batzorde Tekniko Parekidearen parte gisa, HJLZren eta Kanboko herriaren artean burutu duten elkarlanari esker, elkargoak galde honi baikorki ihardetsi ahal izan dio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

Herriko Etxeko langile guztien izenean, Kanboko herriaren eta HJLZren arteko harreman sozialen baitan mugari bat jartzen duten bi erabaki horiek hartzeagatik Herriko kontseilua eskertzen du Auzapez jaunak. Ber gisan, Kanboko Batzorde Tekniko Parekideko kideak beren parte hartze konstruktiboagatik eskertzen digu.

## **15 – Hilerria : atezaindegia eta zati denborazko lanpostu baten sortzea.**

Joan den martxoaren 21ean, Herriko kontseiluak hilerriko laneko bizitegiari buruzko erabakia hartu zuela oroitarazten du Zerbitzuetako zuzendari nagusiak. Arlo horretan legeria errespetatzeko, alde batetik, deipeko okupazio prekario gisako hitzarmen baten bidez emandako bizitegiari buruz, eta, bestetik, gunearen zeregin batzuk bermatzeko ardura izango duen laguntzaile teknikoaren lanpostu baten sortzeari buruz, erabaki berri bat hartzea komeni da.

Lehenik, astean bost oreneko zati denborazko eta bigarren mailako laguntzaile teknikoaren lanpostu baten sortzea proposatzen zaio Herriko kontseiluari. Enpleguak zeregin horiek izanen ditu : zikinontziak bereiztea, ateratzea eta sartzea; ehorzketarako jantzi erreserbak zaintzea; hilerriko eta kanpoko guneen garbitasunaren zaintzea; hilerriko erabiltzaileen informatzea; erabiltzaileen eskaerak jasotzea eta transmititzea; familiendako eta ehorzketa enpresendako behin-behineko hilobia eta herriko hezurtegia zabaltzea.

Atezainak bere betebeharrak bermatzearen ordain gisa, hari laneko bizitegia ematea proposatzen zaio.

Menpekotasun bereziak kontuan hartzeko, elkargoek enplegu batzuei lotutako enplegatuei laneko bizitegiak emateko aukera badute. Langilea deipekoa delarik, deipeko okupazio prekario gisako hitzarmen baten parte gisa langileari bizitegia ematen zaio, eta, gutienez, bizitegiaren egiazko alokairu prezioaren %50eko balioaren ordainez. Bigarren mailako eta zati denborazko laguntzaile teknikoaren lanpostua hartuko duenak hilerriaren atezain zeregina beteko du. Hilerriaren zaintzeko eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, laneko bizitegia izanen du, ordain horrek izaera osoa ez duelarik. Emandako bizitegia hilerriko atezaindegian kokatzen da. Bizitegiak lau gela nagusi ditu. Zerga Etxeko zerbitzuek bizitegiaren alokairua 2 275 eurotan estimatzen dute.

Auzapez jaunak balio horren ordaina %63.60an finkatzea proposatzen du, hau da, hilabetean 120 eurotan.

Alokatzaileari dagozkion eta emandako bizitegiari lotutako konponketa lan eta karga guztiak atezainaren gain izanen dira.

Atezainaren deipeko betebeharrak pertsonen eta ondasunen babestea eta zaintzea bermatzea dira. Honela gauzatzen dira : hilerriaren itzulia egitea; hilerriko atek zabaltzea eta hestea; ekipamendu teknikoen funtzionamendua zaintzea; teknikari edo pertsona bati lotutako arazo bat gertatzean esku hartzea eta abisatzea.

Zati denborazko eta bigarren mailako laguntzaile teknikoaren lanpostuarekin batera, deipeko okupazio prekario gisako hitzarmen baten bidez, langileari laneko bizitegia ematea proposatzen zaio Herriko kontseiluari. Bizitegia Kanboko hilerriko atezaindegian kokatua da. Gainera, Herriko kontseiluari ordainaren balioa hilabetean 120 eurotan finkatzea proposatzen zaio.

Presentzia betebeharragatik eta beraz zerbitzuaren behar osoagatik, martxoan, Herriko kontseiluak bizitegia ematea erabaki zuela ohartarazten du Aïçaguerre andereak. Bi hilabete berantago, deipeko okupazio prekario gisako hitzarmen baten bidez, langileari bizitegi bera ematea proposatzen zaio. Astean bost oreneko lan kontratuari buruz, Kanboko herriak legeriaren arabera jokatzeko du, eta zerbitzuaren behar osoagatik bizitegia mantendu ote zitekeen galdegiten du.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak zerbitzuaren behar osoak atezaina eguneko 24 orenean presente egotea behartzen duela ihardesten dio, asteko bi pausa egunak eta urteko opor egunak salbu. Hala, zerbitzuaren behar osoa ez zitekeen mantendu. Izan ere, Pierrot Etcheçaharreta jaunak funtzio publikotik erretreta hartu du eta ondorioz lanpostu hori ezin du bete, eta, Etcheçaharreta andereak jadanik zati denborazko lanpostu bat badu. Elkargoak araubide hau hunkitzen baitzuen, eta Etcheçarreta senar-emazteak lanpostu honetan atxikitzea arriskuan jartzen baitzuen, Kanboko herriak erabakia gibelatu du. Deipeko okupazio prekario gisako hitzarmen baten bidez, hautsi-mautsi bat aurkitu da. Etcheçaharreta jauna eta anderea Herriko Etxean errezibituak izan dira eta Etcheçaharreta andereak erretreta hartzeko adina izanen duelarik lekuak hustu beharko dituztela errana izan zaie, orduan, atezain zeregina ezin izango baitute bete.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## **16 – Herriko langileen estatutu asurantzak kontratua.**

2012 urteaz geroztik, Kanboko herriak CNRACLEko kide diren langileen estatutu betebeharren (usaiako eritzeak, eritasun luzeak, epe luzeko eritasunak, zerbitzuko istripuak...) ondoriozko diru arriskuak bermatzen dituen asurantzak kontratua izenpetzen duela zehazten du Auzapez jaunak.

Kontratua hiru urtekoa da eta 2016ko abenduaren 31n amaitzen da. Estatutu asurantzak berri baten izenpetzeko, konkurrentziarako deialdi berri bat zabaldu behar du Herriko Etxeak. Bi maneratan metaturik egiten ahal du:

- konkurrentzian ematea Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroaren esku uzten ahal du,
- kontratu berri baten izenpetzeko, bere baitarik, asurantzak hartze bat abiatzen ahal du.

Lehen kasuan, Kudeaketa Zentroak departamenduko lauhun elkargo baino gehiago bildu ahal izan zituen eta elkargo horientzat hautagaitza deialdi bat zabaldu zuen; hor ere, epea 2016ko abenduaren 31 da. Kudeaketa Zentroak deialdi berri bat zabalduko du eta bere kide diren elkargoei bere bidez konkurrentzia deialdian parte hartzea proposatzen die.

Talde honetan sartzea egoki litzateke. Hala, Kudeaketa Zentroak Kanboko Herriko Etxearen izenean urraspidea abia lezake. Baina, horretarako, Herriko kontseiluak erabaki bat hartu behar du.

Bestalde, Herriko Etxeak bere deialdia egiteko aukera badu. 2012an, hala egin zen. Orduan, Kudeaketa Zentroak eskaintzen zuen soluzioa Kanboko Herriko Etxeak oraingo kontratuko titularrarekin ukan zuena baino txarragoa zen. SMACL da kontratuaren titularra eta elkargoak harekin harreman interesgarriak ditu. Ardurenean, elkartzek proposamen hobek hartzeko balio du, baina, 2012an, ez zen hala izan.. Horregatik, Herriko Etxeak bere deialdia zabalduko du. Hala ere, behar balitz, Kudeaketa Zentroak abiatutako urraspidearen abantailak ukan nahi ditu ere.

Bi prozedurak konkurrentzian jartzea da asmoa, eta, gero, bien artean elkargoarentzat interesgarriena dena hautatzea.

Energiaren, gasaren eta elektrizitatearen merkatuetan, Herriko Etxeak bi prozedura horiek zergatik ez dituen konkurrentzian jarri galdegiten du Bacardatz jaunak. SDEPArekin bateratze bera zegoen eta Herriko Etxeak ez zuen bere baitarik deialdirik zabaldu.



Herriko Etxea SDEPAREN kide egin zenez, egiturari konfiantza egin ziola ihardesten dio Goytino jaunak. Bere baitan bateratu diren berrehun herrientzat SDEPAk negoziatu zuen. SDEPAREN garrantziagatik, enpresek SDEPARI proposatuko zizkieten eskaintzak interesgarriagoak izanen zirela uste izan zuen Herriko Etxeak.

Mutualizatzek ez dituela beti gastuak apaltzen zehazten du Auzapez jaunak. Estatutu kontratuaren adibideak hori frogatzen du. Enpresa batekin zuzenean egin negoziaketa taldean egin negoziaketa baino emankorragoa izan da.

Kanboko herriak Kudeaketa Zentroaren negoziaketari buruzko zalantzak adierazten dituela gehitzen du Bacardatz jaunak.

Auzapez jaunak Kanboko herriak ez duela zalantzarik adierazten ihardesten dio, horiek Bacardatz jaunaren hitzak direla eta ondorioz hitz horien ardura hari dagokiola. Kanboko herriak ez du haren hitzekin bat egiten. Kudeaketa Zentroaren eraginkortasuna eta zintzotasuna ez dira nehola ere zalantzan jartzen. Gai juridikoentzat, Kanboko herriak erregularki Kudeaketa Zentroarekin lan egiten du.

Estatutu asurantzaren kontratu berri baten hartzeko konkurrentzia deialdia zuzenean zabaltzeko, HJLZk Kanboko herriarekin bat egiten ahal ote duen galdegiten du Saint Jean jaunak.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak hori ezinezkoa dela ihardesten dio. Kudeaketa Zentroari dagokionez, bi azalpen badira. Alde batetik, asurantzek eskaintzen dituzten tasak elkargoetako istriputasun tasaren arabera dira. Bestetik, elkargoek asurantzaren estaltze mailak langileei buruz hautatzen dituzte. 2009an, Kanboko Herriko Etxeak zortzi egunetik behereko eritasun arriskua estaltzeko estatuturik hartu ez zuenez, 2008an %6.28 zen tasa, 2009 urtean %2.63ra apaldu zen. Kudeaketa Zentroak elkargo guztiak deialdi urraspide bikoitz hau egitera bultzatzen dituela zehazten du. Kudeaketa Zentroa elkargoen metaketa bat baizik ez da, eta, elkargoek, batzuen eta besteen artean, istriputasun tasa arras ezberdinak dituzte.

HJLZri dagokionez, juridikoki eta aurrekontu mailan autonomoa da. Istriputasun tasa ezberdina duenez, elkarrekin deialdi bat zabaltzea ezinezkoa da. Haatik, urraspidea bera da. HJLZren istriputasun tasari dagozkion emaitzak eta eskaintzak jasotzeko, hiruzpalau enpresa hautatzea nahikoa da.

Kudeaketa Zentroa zalantzan jarri gabe, formula interesgarriena aurkitzeko asurantzaren konpainiak konkurrentzian jartzea, eta aldi berean, herriei mutualitateentzat urraspide bera ez egitea aholkatzea, kanpotik gauza bitxia iruditzen zaiola ohartarazten du Michelena jaunak. Kasu batean ikusmolde bat, eta, bestean, herrietako biztanleen kalterako, beste ikusmolde bat nola izan daitezkeen ez du ulertzen.

Auzapez jaunak ironia ote den galdegiten dio.

Michelena jaunak ezetz ihardesten dio.

Auzapez jaunak egoerak ezin konparatuzkoak direla erantzuten dio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

## 17– Auzapezaren erabakien berri.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko kontseiluaren erabakiaren arabera, honakoaren berri emana da :

- 2016ko apirilaren 16tik maiatzaren 20ra, Hirian erosteko lehentasunari lotutako ezezko erabakiak :
  - Lursaila : 1
  - Etxea : 3
  - Apartamentua : 1
  - Sotoa : 0
  
- 2016ko apirilaren 16tik maiatzaren 20ra, hilerriari eman eta berriz hartu kontzesioei buruzko erabakiak :
  - 15 urteko kontzesioen erostea : 0
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobiak) : 0
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ kolunbarioak) : 0
  - 15 urteko kontzesioen berritzea : 1
  - 30 urteko kontzesioen berritzea (hilobiak) : 0
  - Lursailen berriz hartzea, urririk : 0

## 18 – Bestelako aipagaiak.

- Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren egitarauaren baitako Arnaga 2016 arte garaikidearen erakusketa garrantzitsuaren estreinaldia 2016ko ekainaren 23an, ostegunarekin, 18:00etan, Arnagan iraganen dela oroitarazten du Auzapez jaunak. Pertsona ezagun batzuk presente izanen dira, hala nola Donostiako alkatea den Eneko Goia eta Donostia 2016 Fundazioko zuzendari nagusia den Pablo Berastegui.
  
- Ekainaren 7an, asteartearekin, 18:00etan, Azantza kultur gunean, Pablo Tillac artistari eta « Zugarramurdiko sorginak » maisulanari zuzendutako erakusketaren estreinaldia iraganen dela jakinarazten du Auzapez jaunak.
  
- La Chaîne Thermale du Soleil bainuetxeko Pascal Boisroux zuzendari jaunak Herriko kontseiluko kideak 2016ko ekainaren 20an, astelehenarekin, 17:00etan, bainuetxearen bisita egitera gomitatzen dituela jakinarazten du Auzapez jaunak. Ondotik, Pavillon Bleu jatetxean aperitifa izanen da. Antolakuntza errazteko, Marie-Pierre Brave-ekin harremanetan jarri eta izena eman.
  
- Pako Arizmendik, 2016ko ekainaren 8an, asteazkenarekin, 19:00etatik 21:00etara, Hazparnen, Haritz Barne zinema gelan iraganen den « Euskara babes dezagun » gaiari buruzko mintzaldi-eztabaidara Herriko kontseiluko kideak gomitatzen dituela jakinarazten du Auzapez jaunak.
  
- CADE eta Stop Mines-en elkarretaratzera joateko gomita errezibitu ote duen galdegiten dio Hiriart-Urruty andereak Auzapez jaunari. Sudmine enpresako Vallier jaunak antolatu duen bilkuraren aurkako elkarretaratzea, 2016ko ekainaren 10ean, ostiralarekin, 18:00etan,

Senperen iraganen da. Sudmine enpresaren proiektuaren kontra diren pertsona eta hautetsi guziak presente egotea galdetzen dute.

Joan den asteko Herriko kontseilua aitzin gai horretaz solasean ari izan diren auzapezen ikusmoldea adierazten dio Auzapez jaunak. Ofiziala ez den bilkura horretara ez joateko erabakia hartu dute auzapezek. Frantziako estatuak plantan ezarriko duen batzorde bat sortuko da. Ekainaren 10eko bilkura eta jarraipen batzordearen kide izateko proposamena, proiektu eramailearen ekimen hutsa da. Auzapezek bi gauza deliberatu dituzte: Sudminek antolatutako bilkuran ez parte hartzea, CADEk eta Stop Mines-ek antolatutako kontra-elkarretaratzean ez parte hartzea. Jatsuko Auzapeza den Alain Castaing jaunaren proposamenari jarraikiz, proiektu honen aitzinean auzapezek duten ikusmoldea oroitarazten da; hedabideei helarazia izan zaie. Ondorioz, bilkura horretan, ez da Herri Elkargoko ordezkariak ofizialik izanen.

Hiriart-Urruty andereak hautetsiei hedatzekoa den CADEn eta Stop Mines-en gomita jaso ote duen galdegiten dio.

Auzapez jaunak horren berri jakin duelarik galdegin zuen bezala, mezu elektronikoa bihar goizean hautetsi guzietan igorriko dietela ihardesten dio Zerbitzuetako zuzendari nagusiak.

Hiriart-Urruty andereak hautetsiak presente izatea eta karrikara ateratzea garrantzitsua dela zehazten du. Gutuna Vallier jaunari igorriko zaio, eta ez zaio beste nehoi jakinaraziko.

Auzapez jaunak gutun hori prentsa eta Baionako suprefeturari igorri zaiola errepikatzen du.

Hiriart-Urruty anderearen ustez, ostiralean, Senperen, prentsa presente izanen da. Ondorioz, hautetsiak proiektu horren aurka mobilizatzen eta mugitzen direla ikustea ongi litzateke.

Auzapez jaunak bakoitzak ahal duena egiten duela ihardesten dio. Ez da Kanboko ordezkariak ofizialik egonen eta Auzapez jauna ez da han izanen.

- Bacardatz jaunak Zesarren Zelaiko obrak berriz aipatu nahi ditu. Obrak ez dira oraino bukatuak. Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordean enpresa hori hautatua izan zelarik, irizpide ezberdinen arabera hautatua izan zen: teknikak, epeak, dirua. Ontsalar, obrak abenduaren 6an amaitu behar ziren. Ekainaren 6a da gaur eta oraindik ere obrak ez dira bururatuak. Herritarrentzat informazio bilkurarik egitea aurreikusten ote da ?

Devèze jauna falta denez, Auzapez jaunak ezin dio galdera honi erantzun. Hurrengo Herriko kontseiluan, Bacardatz jaunak galde bera pausatuko duela uste du. Orduan, erantzun zerbait ukanen duela uste du, menturaz. Ekainaren 8ko bilkura teknikoaren kariatara, gai hori aztertuko da.

- Higiezin programa bat merkaturatze bidean dela adierazten du Aïçaguerre andereak. Programa horretan « Pinel legearen barne sar daiteke » idatzia da. Kanboko herria ez denez Pinel legearen barne sartzen, proiektu horrentzat baimen berezirik izan ote da ?

Erantzuna Frantziako estatuko Zerga Etxeko zerbitzuek eman dutela ihardesten dio Auzapez jaunak. B2 eremuan sailkatua denez, berez Kanboko herriak Pinel legearen barne sartzeko eskubidea du, baina herriak ez du norabide horretako erabakirik hartu. Hala, promotoreari, kanpaina egin duelarik, Frantziako estatuko Zerga Etxeko zerbitzuetako informazioaren parte batean oinarritzea ezin zaio leporatu. Kasu horretan, errua ez da Kanboko herriarena.

- Hiriart-Urruty andereak Axe et Site kabinetearekin bilkura bat antolatu nahi du. Menturaz bilkura horrek Herriko kontseiluko kide guziak interesatzen ahal ditu. HTPren berrikuste lanei buruzkoa izanen da.

Bardin jauna biziki argiki mintzatu zela ihardesten dio Auzapez jaunak. Exekutiboari dagokion instrukzio fase bat bada. Frantziako, Nafarroako eta beste lekuetako elkargo guzietan bezala, herritarrek gehiengo baten alde egin dute. Exekutiboa osatzen duten kideekin, hau da, gehiengoan den udal taldearekin aztertuak dira instrukzio gaiak. Haatik, fase bakoitzean hirigintza batzorde bat izanen da. Ez bukaeran. Fase bakoitzean. Txostena aitzinatzen utzi behar da. Frédéric Bardoin hirigintzako auzapezordeak aurkezteko nahikoa gauza badela uste izanen duelarik, bukaerako bozketara heldu gabe bistan dena, hirigintza batzorde baten bilkura izanen da. Auzapez jaunak Frédéric Bardoinen metodoan konfiantza osoa du. Azken hau ez da deus gordetzera entseatzeko, eta gauzak aitzina daitezeko nahi du. Gauzak hala gertatzen dira leku guzietan.

Hiriart-Urruty anderea ez da hirigintza batzordeaz mintzo, burutzen den lanaz interesatuak diren hautetsi guzietan mintzo da.

Auzapez jaunak hirigintza batzorde baten balioaz galdekatzen du orduan. Arazo bakoitzeko Herriko kontseilu osoa bildu behar baldin bada, zertarako balio du beraz hor lan egiteko den hirigintza batzordeak ?

Gehiengoan den udal taldeak hasitako lanean beste hautetsiak ez sartzea erabaki duela ongi ulertu du Hiriart-Urruty andereak. Zergatik hala egiten ote duten galdegiten du, nahiz eta erantzuna ezagutzen duela uste duen.

Auzapez jaunak Hiriart-Urruty anderearen iritzia dela ihardesten dio, eta oposizioko lau hautetsiak bakarrik engaiatzen dituela. Alderantziz, denen arteko gogoeta izan daitekeela uste du. Gaur arte, ez du sentitu elkarlanean aritu nahi zutenik. Eta ez du uste halakorik nahi dutenik ere. Oposizioan izateko manera bat da. Hasteko, gehiengoan den taldeak lanean segitzen du eta osagai nahikoa izanen den aldi oro, Bardin jaunak Herriko kontseiluko kide guzien aitzinean bilkuren egiteko, egoera-akta aurkezteko eta ondotik gai horretaz eztabaidatzeko engaiamendua hartu du.

Lan taldean direnez aparte, gehiengoan den taldean ere nehor ez dela deusen jakinean azaltzen du Lespade andereak.

Hiriart-Urruty andereak uste zuena baino larriagoa dela gehitzen du, gehiengoan den taldeko kideen artean ere deus ez baitakite.

Lespade andereak lan taldekoei konfiantza osoa egiten diela ihardesten dio.

Oposizioko taldeak haien baitan konfiantzarik ez duela erraten du Hiriart-Urruty andereak.

Haren konfiantza eskasa ikusirik, Hiriart-Urruty anderea proiektuetan parte harraraztea zaila dela azpimarratzen du Auzapez jaunak.

Hiriart-Urruty anderea emaitzaren beldur da. Itsasuko edo Uztaritzeko auzoko herrietan, HTPren berrikusteko enplegatu duten kabinetearik Herriko kontseilu osoa biltzen duela oroitarazten du. Bilkuretara, nahi edo ahal duen edonor jiten da.

Itsasuko herria eredugarria baldin bada, arrats honetan hori jakinik pozik dela gehitzen du Auzapez jaunak. Roger Gamoy jaunari egin omenaldia eskertzen du. Itsasuko oposizioak ikusmolde bera duen zalantzak baditu. Auzapez jaunak zera gehitzen du : « Nola nahi ote duzu proiektuetan parte hartzera gomit zaitzagun, Herriko kontseiluan, denen aitzinean, konfiantza izpirik egiten ez diguzula adierazten duzularik ? ». Frédéric Bardin jaunaren metodoaren baitan konfiantza osoa duela oroitarazten du Auzapez jaunak.

- Herriko aldizkariarendako artikulua duela aste bat igorria izan zela zehazten du Bacardatz jaunak. Hala, oposizioari ezin zaio leporatu hurrengo aldizkariaren argitaratzea gibelatzeko saiakera egiten duela.
- Auzapez jaunak goresmenak ematen dizkio.
- Nolanahi ere, artikulua epez kanpo jaso dutela gehitzen du Lassus jaunak.

22:45etan, Auzapez jaunak Herriko kontseiluaren bilkurari bururapena ematea erabakitzen du.